

berreraikitzen zituzten eta txikienek mota guztietako makilak ekartzen zituzten. Eskola-komunitate osoak parte hartzen zuen hezkuntza-proiektu berean.

Gela bakoitzean, ez zeuden behar adina ikasmahai, eta egurrezko makilez egindako aulkiak inprobisatu behar izaten ziren; zorua bera ere baliagarria izan zitekeen. Eskola-materiala urria zen, materiala zegoenean, eta irakasleek benetako sormen-arietak egin behar izaten zituzten materialik eta behar adinako espazio fisikorik ez zuten ikasleek eguneko ikasgaiari jarrai ziezaioten.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak eskoletan egin zuen hezkuntzalanaren oinarria hurbiltasuna eta laguntza pertsonala ziren funtsean, baina ezin zen eta ez zen nahi neska-mutiko horiek bizitako esperientzia traumatikoak albo batera utzi, larriki baldintzatzen baitzituzten haien sentimenduak eta pentsamenduak. Hezkuntza ez da jarduera hezigarri hutsa; nagusiki, nork bere burua ulertzeko modua da eta, ildo horretan, inguratzen gaituen mundua ulertzeko modua: irekia, malgua, irmoa giza eskubideen defentsan eta, batez ere, elkarriketarako irekia, gatazkak konpontzeko moduari dagokionez. Eta horregatik erabaki genuen Salala 2 eskolan, irakaskuntza-proiektuaren zati gisa, programa pilotu bat abian jartzea traumari buruzko orientazioa eta laguntza emateko. Programa horren helburua iraganeko esperientzia mingarriei orainaldian ekitea zen, etorkizun-aukera berriak –hauskorrak izango ez zirenak– irekitzeko.



Proiektua

Gure lehen urratsa esparruko haur gehienen orainari “laguntzeko” modu onena bilatzea izan zen; haur horien orainak zerikusia zuen gertatzen ari zen lekualdatze psikologikoarekin, eta berehalako lekualdatze fisikoaren aurretiazko egoera zen: itzuleraren aurretiazko egoera,

hain zuzen ere. Lekualdatuen jatorrizko lekuetarako itzulerari buruzko albisteak zauri berriak irekitzen ari ziren, baita ezkutuan geratzen ziren itxaropenak agerrarazten ere; itxaropen horiek, kasu askotan, utzi behar izan zuten ingurura itzultzeko beldurraren atzean ezkutatzen ziren.

Bagenekien soldadu izatera behartutako haur askoren beldurrak eta segurtasun ezak “moldatzeko” eta adierazteko balio izan zuela marrazkiak gatazka batzuetan; Sierra Leonako gatazkan, esaterako. Fátima Mirallesen² proiektu horretan egin zuen lan, eta frogatu zuen marrazkiaren bidez honako helburu hauek lor zitezkeela: maila pertsonalean, bizitzetan ordena pixka bat jartzea, jasandako esperientzia kaotikoen ondoren; maila sozialean, berriz, drama eragindako testuinguruaren adierazle eta salaketa bihurtzen zen marrazkia. Mugarik Gabeko Medikuek erakundeak errefuxiatu liberiarrekin lan egin zuen Sierra Leonan³, eta erakutsi zuen sufrimenduaren esperientziak arintzea lortzen dela adierazpenaren bidez, pertsona- eta gizarte-adiskidetzarako bide posible bat irekitzeko adina.

Horrenbestez, pentsatu genuen zenbait esperientzia pertsonal finkatzeko erabilgarria izan zitekeela marrazkia:


- a. *oraindik ere hitzez adierazi ezin diren esperientziei forma emanda; horren bidez,*
- b. *mehatxatzailea izango ez zen leiho bat ireki ahal izango genuen etorkizunera, eta, batez ere, lagundu egingo genuen*
- c. *oraindik ere askok bizi zuten gizarte-indarkeriaren testuingurua salatzen.* Horiek izan behar zuten, argi eta garbi, gure helburuak.

Hala ere, horrez gainera, guk abian jarritako ezein ekimenek gizarte-ildoak izan zezan nahi genuen. Proiektua kalera, lekualdatuen esparruko kaleetara eta jende horren bizitzetan eraginik izan dezaketenen kaleetara ateratzeko gai izatea eskatzen zigun ildo horrek. Batean

² F. MIRALLES, J.M. CABALLERO, *Yo no quería hacerlo: los niños forzados a ser soldados en Sierra Leona se expresan a través del dibujo*. UPCO, Madrid 2002.

³ MEDECINS SANS FRONTIERES, *Healing Group*. Messages nº 132.

nahiz bestean, espaloietatik edo lokatzetatik, batzuetan estigmatizagarria den erantzun pertsonaetik haratago joan nahi genuen, parte-hartzea sustatuta, kontzientziatuta eta sentsibilizatuta. Hori ezinbesteko urratsa zen ekintza eraldatzailea eta iraunkorra lortzeko bidean.



Jarduera: Etorkizun-aukerak

Bi ziren kontuan izan beharreko erronka nagusiak. Lehenengoa, Salala 2 eskolara joaten ziren neska-mutiko guztiei onura egingo zien jarduer bat antolatzea; zenbait adinetako 1.500 pertsonarekin baino gehiagorekin lan egitea eskatzen zuen horrek. Bigarrena, nola joan banakorekin mugetatik haratago. Garbi zegoen jarduera adin guztietako hau-

rrei egokitu behar geniela, eskola guztira zabaltzeko eta jardueraren ahalmena ahalik eta gehiena aprobetxatzeko. Horretarako, eskolaren beraren antolaketa-egituran oinarritu ginen, bi adin-talderen arteko banaketa ematen baitzuen bere horretan: goizeko ikasleak (ABC eta KG) eta arratsaldekoak (1-9 mailak).

Bigarren helburua lortzeko, hau da, banakoaren mugak gainditzeko, bi faseko proiektua diseinatu genuen talde bakoitzarentzat:

- Nagusienek (1-9 mailetakoe) bere adierazpenari, marrazkiari, egin beharko zioten aurre lehenik eta, ondoren, ikaskideek egingakoa ikusi, alderatu eta hari buruz hitz egin.
- Txikienekin (ABC-KG), haien marrazkiak baliatuko genituen erakusketa ireki bat antolatzeko; lekualdatuen esparruko biztanle guztientzat antolatuko zen erakusketa hori.

Baina, zer marraztu? Garbi genuen beren bizitzari buruz nahi zutena adierazteko aukera eman behar geniela, guk, aurretiaz, indarkeria, galerak eta abar nabarmendu gabe. Beraiek aukeratu behar zuten zer zen garrantzitsuena, zer esanguratsuena, eta ez genituen behartuko adierazi nahi ez zuten hura azaltzera. Horregatik, are esanguratsuagoa iruditu zitzaigun marrazkien emaitza: indarkeria oso sustraituta zegoen, gerra bi urte lehenago amaitu arren.

1. Fasea: Marratzen

ABC-KG



ABC (10 gela) eta KG (8 gela) taldeetan bildutako txikienei eskatu genien esparruan nola bizi ziren marrazteko, eta jardueraren alderdi **ludikoena** nabarmendu genuen, egungo sentimenduak eta bizipenak **adierazteko**.


Horixe zen helburu nagusia: bizitako esperientziak adierazteko sare gisa erabiltzeko testuinguru ludikoa ematea. Gela bakoitzarekin saio bateko jarduera prestatu genuen, ordubete ingurukoa (kasu batzuetan, marrazkien azalpena zela eta, pixka bat luzeagoa izan zen), gehiegi luzatuz gero bilatzen genuen giroa eta onarpena desager baitzitezkeen. Gainera, jarduera saio bakar batean egitean, oraindik ere egiteko prest ez zeuden ahalegin gehigarririk ez egitea lortuko genuen. Garrantzitsua zen jarduera saio bakar batean irekitzea eta ixtea, ondoriozko pentsamendua lortu gabe.

Jarduera egitean, neska-mutiko batzuei marrazten lagundu behar izan genien; irakasleek esaten ziguten ez zeudela hartara ohituta. Hurbildu, eta marraz egiten genizkien orrian, koloretako arkatzez, baina formarik eman gabe; eta, gero, gauza bera egitera animatzen genituen. Gehienak, pixka batean pentsatu ondoren, egiten genuena antzeratzen hasten ziren. Deigarria zen, halaber, giza irudiak nola egiten zituzten ikustea, hankak erabat luzatuta lurlean. Irakasle batek argitu zigun horren esanahia: hori zen entrenamendu militarreko eremuetan era-kusten zieten jarrera, inork ikusi gabe mugitzeko.

Galdera bat hasi zen gorpuzten, marrazkietan adierazitako indarkeria-
ren harira: Zergatik jarraitzen zuten gerrako eszenak margotzen lekual-
datuen esparruko bizitzari buruz galdetutakoan?

1. - 9. mailak

Nagusiagoak bederatzi ikasturtetan (16 gela) banatuta zeuden, eta ez
zegoen eragozpenik jarduera zenbait saiotan lantzeko. Gainera, aukera
hori balia genezakeen espazio pertsonal pribatuagoetara iristeko.



Hiru astez jarraian, talde bakoitzari eskatu genion oraingo esperien-
tziak eta bizipenak, iraganeko esperientziak eta etorkizuna marrazteko.
Hiru marrazki horien bidez, onartzen erraza izan ez zitzaiena adierazi
zuten, baina baita etortzeko zeuden nahiak eta beldurrak ere. Hiru
marrazki, bizitako gertaeren multzoari nolabaiteko zentzua eta egitura

emateko, logika bat osatuz gertaera zehatzekin, ustekabekoekin eta, askotan, zatituekin; hau da, **biografia**, nortasuna.

Arratsaldeko talde batzuetan jende asko elkartu zen; 100 pertsona baino gehiago egon ziren espazio murriz batean marrazten saiatzen: batzuk zoruan jarri ziren, beste batzuek ez zuten non jarri... Hala ere, harritu egin gintuen nola egon ziren taldeak lanean, isilik, jarduerak iraun zuen artean. Hain sartuta zeuden marrazkian, ezen ama nerabe batek gelan semeari bularra ematen zion bitartean marrazten baitzuen.

Bitxia bada ere, iraganari buruz marraztean lehenago amaitzen zuten. Pentsatu genuen proposatzen genienak, agian, gehiegizko erresistentziaren bat sortzen zuela. Giroan, barre eta txantxa ugari sumatzen ziren. Agian, une batzuetan gertatu zitzaienari buruz marrazteak ateratzen zuen tentsio horrek barre egitera bultzatzen zituen, arnasa hartzeko bezala, oroitzapenari lotutako larritasuna askatzeko modua balitz bezala.

Hori bezain harrigarriak izan ziren “etorkizunari” buruzko marrazkiak. Batzuek indarkeria-eszenak marrazten jarraitzen zuten: bake iraunkorrean konfiantzarik ez zutelako; batzuentzat hiru marrazkiak esperientzia bera zirelako, eta, saioz saio, pixkanaka sakondu zutelako esperientzia hori; edo, agian, batzuk jasandako esperientziek harrapatuta geratu zirelako, eszena bera behin eta berriz errepikatuz.

2. Fasea: Jabetzen

Bigarren fasean, bi jarduera egin genituen, txikien eta nagusiagoen taldeen adierazpen- eta ekoizpen-dinamikak desberdinak izan zirelako. Hala ere, helburu berari eutsi genion: norberaren eta gainerako ikasikideen marrazkiak ikusteko aukera ematea, nork bere bizipenak partekatutako gizarte-testuinguru batean ikusi ahal izateko, eta gainerakoen esperientzietan nork bere burua ikusteko.

1. -9. Mailak

Esparruan eta esparrura iritsi aurretik nola bizi ziren marraztu zuten nagusienek, baita etorkizuna nola ikusten zuten ere. Marrazkiak hiru taulatan jarri genituen: iraganari buruzko taulan, orainari buruzko taulan eta etorkizunari buruzko taulan. Aurretiaz azalpenik eman gabe, gela bakoitzak saio bat izan zuen hiru marrazkiei begiratzeko, haiei buruz hitz egiteko eta erkatzeko. Ondoren, marrazkiak ikustean izan zituzten inpresioei buruzko elkarrizketa egin zen eta, azkenean, marrazkiei hitzak jartzeko eskatu genien, beren bizitzan “kontakizuna” idazteko: nola bizi ziren esparruan, nola bizi ziren esparrura iritsi aurretik eta nola biziko ziren ondoren. Modu horretan, iragandako esperientzien, orainaren eta iristear zeuden itxaropenen eta zalantzen arteko zubia, lotura izango ziren hitzak.

Talde batzuekin bi ordu baino gehiago behar izan ziren prozesua osatzeko, eta jarduera eskola-orduetatik kanpo egitea erabaki genuen, presarik ez izateko...

Hasiera batean, marrazkiei aurre egitean, batzuek barre egiten zuten, elkarri deitzen zioten, eta baten batek arkatza eta borragoma ere hartu zituen, marraztutako zenbait gauza zuzentzeko. Eserita geratu ziren gutxi batzuk izan ezik, gehienak frenetikoki mugitzen ziren marrazki batzuetatik besteetara, norberarenaren bila edo deigarri egiten zitzaiena seinalatuz. Giroa izugarri orbaintzailea zen. Hala ere, marrazkiak begiratu ondoko elkarrizketan, egoera interesgarriagoak agertu ziren: bat edo beste ausartu zen esaten zer mingarria zitzaion oroitzapena erretako etxeak agertzen ziren marrazki batzuk ikustean, berriro hara itzuli behar zuten une horretantxe; esaten zuen gauza bakarra nahi zuela: ahaztea. Beste batek horren aurkakoa aipatu zuen; hau da, marrazkiak ikustean Lofara, bere herrira, itzultzeko gogo sentitu zuela. Beste batek esan zigun marrazten zuen lehen aldia zela, eta marrazten jarraitzeko gogoz sentitzen zela. Zenbait marrazkitan, auke-ra hori eman izana eskertzen zuten...

Elkarrizketa hori positiboa izan zen, baina nork bere bizitzari buruz idazteko esperientziak gure itxaropenak gaineztatu zituen. Ez genuen inolaz ere pentsatzen ordubete baino gehiago emango zutenik nork

bere bizitzari buruz idazten, norberarekin, norbere bizipenekin elkarriketan... Ordubetez baino gehiagoz beren eskuetan izan zuten zer diren, zer izan diren, eta zer uste duten izango direla.

ABC-KG

Txikienek lekualdatuen esparruko bizimoduari buruz baino ez zuten marraztu. Etxeak, autoak, haien moduko neska-mutikoak lanean, baita borrokan ere, eta oso gutxi jolasean; horiek izan ziren marrazkietan gehien errepikatu ziren gaietako batzuk. Orduan, txikienei beren “lanak” ikusteko aukera nola eman pentsatzen ari ginela, galdera bat sortu zitzaigun: zergatik ez dugu marrazki-erakusketa bat egiten esparru guztientzat? Hala, beren lanak agertuko lituzkete, eta bertako bizitza nola ikusten zuten erakutsiko genieke erakusketa ikustera hurbildutako guztiei. Horrela, gainera, hasieratik izan genuen kezka ere erantzungo genioke; hau da, lekualdatuen esparruko eguneroko errealitatera zabaltzea jardura.

Ehunka marrazki eskaneatu eta taulatan bildu genituen, marrazkietan gehien agertutako gaiei jarraiki. “Nire bizitza lekualdatuen esparruan” izenburupean, Salalako lekualdatuen esparruko biztanleek aukera izan zuten txikienek lekualdatuen esparruko bizimodua nola ikusten duten jasotzeko; hau da, etxeak, lanak, autoak, edo oraindik ere hain gogoan zuten indarkeria eta egiteke zegoenaren oroitzapena. Zazpi taula haien bidez, helduak harritu egiten ziren, eta marrazki haietariko bakoitzetik ikasten zuten. Gainera, erakusketara hurbildu zen pertsona bakoitzari aukera eman zitzaion taula zuri batean nahi zuena adierazteko eta, harrigarria bada ere, horrexek izan zuen arrakastarik handiena. Marrazteko ilarak amaigabeak ziren.

Asteburu osoan, goizeko getatik arratsaldeko 5etara, milaka pertsona (txikiak eta helduak) etorri ziren erakusketara, ikusteko, barre egiteko, marrazteko, eta txikienek lekualdatuen esparruko bizitzari buruz zer ikuspegi zuten jakiteko. Eta esanahi handiko une txikien lekuko izan ginen: lanetik zetozela erakusketa ikustera sartu ziren hiru amonari beren hizkuntzan azaldu behar izan genizkien taulak, ez zutelako inge-

lesa ulertzen, eta txunditu egin ziren beren eguneroko bizitza marrazkietan lehen aldiz ikustean. Mutiko bat, marrazkiak ikusi ondoren, eseri eta lurrean marrazten hasi zen, eskuz. Neska-mutiko nagusiagoen talde bat taulaz taula ibili zen barrezka, txikienak hori guztia marrazteko gai nola ziren galdetuz. 30 orduz jarraian, jendea, nagusiak eta txikiak, taula zurian idazten aritu ziren. Dozenaka pertsona, une horretantxe zer marrazten ari ziren etengabe begira. Etxe bat marraztu ondoren, aita ekarri zuen mutiko batek, zer marraztu zuen erakusteko...

Azkenean, 6 urte baino gehiago izango ez zituen haur haren irudiarekin geratu ginen; egunero etortzen zen erakusketa ikustera, eta denbora luzea ematen zuen marrazki haietako bakoitzarekin hizketan. Azken batean, gure asmoaren adibide garbiena zen: marrazkiek elkarrizketa pertsonalari eta sozialari bide ematea, banako bakoitzak bizitako esperientzien bidez.

3. Fasea: Ebaluatzen

Talde guztiekin amaitu ondoren, eta ebaluazio-saio gisa, ikasleei egiten ikusitako jarduera bera egin genuen eskolako irakasleekin, goiz oso batean. Haiek ere lekualdatuak zirenez, eskatu genien nork bere bizitzari buruz marrazteko, batetik, beren beldurrak eta itxaropenak adierazi ahal izateko, eta, bestetik, ikasleen bizitzaren atzean dagoen errealitate ez hain akademikoaz jabetu zitezen, errealitate akademikoa bezain garrantzitsua baitzen hura.

Jabetu ginen irakasle haietako askorentzat desio zuten etorkizuna galdutakora, saminez oroitutakora itzultzea baino ez zela; irakasle batek planteatu zuen gizarteak bilakatu egin behar zuela, eta, iraganari begiratu ordez, haiek lekua izango zuten tokira begiratu behar zutela; beste batzuentzat, berriz, beren bizimodua eta inguruarekiko harremana ulertzeko modua hausten zuten zerbait ziren aurrerapenaren zeinuak. Azken batean, ordubete baino gehiagoz mahaigaineratu ziren iruzkinak, galderak eta iritzia, eta ikasleek marrazkien bidez egin zuten ibilbide pertsonala, modu positiboan ebaluatu zuten hura bera egiteko balio izan zien.



Emanaldia

Jasotako mila marrazkik baino gehiagok, neska-mutikoek idatzitako kontaketek eta askotan ezkutatuta dagoen sufrimenduaren esperientzia pertsonal biziak bizipen-multzo hori nola erakutsi, argitara nola eman, pentsatzera eraman gaitu hasieratik, betiere protagonisten begiradatik eta hitzetatik. Eta kondizio ez-duinetan bizi diren haiei duintasuna itzultzeko moduan egin nahi dugu. Agian, lekualdatuen esparruetako bizimoduaren zatirik txarrena ez da elikagai-anoa murrizak izatea, beti “mailegatuta”, inoren lurraldean egotearen sentsazioa eta nor bere kabuz moldatzeko gai ez izatea baizik.

Proiektu horretan bildutako materialek (marrazkiak, kontakizunak, argazkiak) bizitzei buruz hitz egiten digute, hautsitako bizitzei buruz, galdutako bizitzei buruz... baina hainbeste haustura pertsonalen eta sozialen erdian nola biziraun ere erakusten digute. Horregatik ausartzen gara lan hau aurkezten: batetik, uste dugulako jarduera horren bidez neska-mutiko horiek beren zati bat berreskuratu ahal izan dutela; bestetik, aukerei dagokienez gure bizitzetatik hain desberdinak diren baina nahiei eta itxaropenei dagokienez gure bizitzetatik hain hurbil dauden bizitzetara gerturatu gaitezkeelako jarduera horri esker; eta, azkenik, banako bakoitzak babesgabeenak eta hurrek jasaten duten injustiziarekin topo egitean, ezin delako eskuak gurutzatuta geratu.



Iragana

James Kesselee (6. maila)

Nolakoa zen zure bizitza esparrura etorri aurretik? Esparrura etorri aurretik, nekazaria nintzen. 1991. urtean hasi zen gerra Liberian. Jendea elkar hiltzen hasi zen pistolekin, eta goseak ere hiltzen zituen.

Esparrura iritsi ginenean, Elikagaien Mundu Programak Cariko eta Salalako lekualdatuen esparruko jendeari laguntzen zion.

Arthur Cooper (3. maila)

Haxe da nire bizitzaren historia: hona iritsi aurretik, gerra hasita zegoen. Jende asko goseak hiltzen zuen; errepidean, berriz, jendeak elkarren aurka borroka egiten zuen. Nire senide asko gerran hil ziren. Soldatuek gerra-arerioak hiltzen zituzten, eta Gobernuak guztien aurka borrokan zebilen.

Anonimo

Gerra hasi aurretik, ongi bizi nintzen. Amarekin eta aitarekin bizi nintzen, eta eskola on batera joaten nintzen. Eskolatik itzultzean, anaiak laguntzen zidan ikasgaiarekin. Ikasi ondoren, anaiarekin, ahizparekin eta lagunekin jolasten nintzen. Batzuetan, aitak autoan eramaten ninduen lanera, edo buelta bat ematera. Beste batzuetan, merkatua zegoen egunean, arropa erosten zidan; adibidez, alkandora bat, txamarra, txapelak, oinetakoak eta eskola-materiala. Pozik bizi nintzen gurasoekin. Hori gerra hasi aurretik zen, 1990. urtearen aurretik.

Joseph J. Nuarpah (6. maila)

2000. urtean jarri ginen CARIko esparruan bizitzen; egunero hiltzen zuen jendea goseak. Guztiok geunden esparruan, guztiok geunden CARIn bizitza aldatzen hasi zenean.

2002. urtean, eskolara joaten hasi ginen CARIn. Egoera onean zegoen. CARIko esparruan eserita geunden guztiok Gbarngatik pistola-hotsak entzun genituenean, eta Salalara joan ginen korrika. Salalara iristean, ez zegoen lekurik, eta jendea hiltzen ari zen Salalan.



1996an, Ginea utzi eta Liberiara etorri ginen. 1997an, bozkatu genuen eta Taylorrek hartu zuen boterea. Aldaketa batzuk egin zituen, eta arroza ematen zigun hilero, baina ez zen Liberiako eskola-jardueraz arduratzen. Liberialan gerra hasi zenean, Taylor presidenteak eskolara joateko agindu zien soldaduei, gerran aritzeko komunitateko ikasleen bila; egoera horri egin behar izan genion aurre Taylor presidentearen agintaldian.

Salalan libreak gara, eta Jainkoari eskerrak, ez da pistola-hotsik entzuten.

Name: JANE: Grade: I in Grade 1A, in 9/20/20



HAWAII TUGBUYEI = GRADE 3B



ALLAH JOSEPH




12





51



James Gaylor 13 year



She is birina
rice



Jerry yuhquai

John



dedden



Hut



Jerry

police



& gold



GUWOR Ballah Grade 3 B may 12 2000



in Liberia this are
we living in the
house



YarkpaZuo Johnson i KG-4



John Togba






Dulbur wheat

Sumo Manjalai Date 5/11/2005 Grade 4BK



John Y. Folokulah
I am 15 year of age


This is where I live. A beautiful
place, Let me tell you to a place
like this. you will not like to return




where you From.




This is my Table were I used to eat
a nice food and be Healthy.





60864 Morris 10





Grade: 3A Deddeh mulbad CKA Big town 24/1
 May-12-2005 Subur # IDP school



KEZELEC.D. TUNDU Grade-3-B.6/Kar. Dr.V.12 2015







Salala I.D.P School

Stephen G. Zamandu

age 22 grade 9th
5/3/05



you going to lie.



I beg my lord
Kill me



Let go to the next
town.



Two



Kruba wolebah I am 16 years old

Oraina

Korto Dolo (8. maila)

Salala Biko ikastetxea • Salala Lower Bong konderria

Goian aipatutako eskolako ikaslea naiz, eta nire esperientzia nire bizitzan gertatutakoa da. Sufritu egin dut gerraren eraginez.

1997an hasi nintzen eskolara joatean, baina, gerraren ondorioz, atzeratuta noa. Lofa konderrian joaten nintzen eskolara. Gerra hastean, alde batetik bestera ibili ginen ihesi; ez genuen non lo egin, ez zegoen eskolarik eta aitak hona ekarri ninduen. Hemen ikasteko aukera izatea espero dut. Laguntzaile maitea, lagundu iezadazu, neure buruari ni neu izaten lagundu ahal izan diezaiodan.

Zure etorkizuna garela diozu. Liberia, ikusten al duzu zer ari den gertatzen? Ezerk ez du nire hezkuntza etengo, Jainkoak izan ezik; Jainkoak guztiok bedeinkatuko zaituztete, guri laguntzeagatik. Gurasoak galtzen ditugu, gure lagunak hil egiten dira, gerraren erruz hiltzen gara. Nire bizitza hezkuntza da. Orain, etxera joan nahi dugu, eskolak eraikitzeko. Ez dugu gehiago gerrarik nahi gure herrian.

Eskerrik asko ulertzeagatik.

Tarnue Mayayeh (3. maila)

Hauxe da nire etxea. Lekualdatuentzako Salala 2 eskolara joaten naiz.

Lofa konderritik nator, Vonjama hiritik. Etxean, amak arroza ogiarekin prestatzen zigun. Aitak lurra lantzen zuen guretzat. Nire irakaslearen izena Gbouam jauna da. Ama, aita eta anai-arrebok lekualdatuen esparruan bizi gara. Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuaren eskolara joaten gara; guztiok gara lekualdatuak Salalan. Elikagaien Mundu Programak lagundu egiten digu Salalako lekualdatuen esparruan.

Ettxera itzuli nahi dugu. Nekatuta gaude lekualdatuak izaten.

Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuak liburuak eta bolalimak emanez laguntzen digu.

Aitak Elikagaien Mundu Programarekin egiten du lan.

Anaiak Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin egiten du lan.


Mugarik Gabeko Medikuak erakundeak sendagaien bidez laguntzen digu.

Gurutze Gorriak gure familia aurkitzen laguntzen digu.

Oxfam erakundeak ura lortzen laguntzen digu.

Munduko Federazio Luteranoak xaboia emanez laguntzen digu.

GAY FLOX - YANQUEI - 28 Year old



BOSCO MORLEY - 3B - 16 years. I was Bangay
in 1990. This is the School Building of the I.D.P
Camp



Peter Alois Grob 118 1911 Year



Turner
Ballan
Year 15



6th Grade Name David Duwor April 27/05

Age is 22 years old



This is the houses Displace live
in no development, we can^{not} receive
proper Food, no Materials things like
cloth, Foot wear e.t.c.

this is the another important
thing that I want to tell you people
we are fire living in this displace
life we want go home we are —
appliding to ~~the~~ UN to please
~~can~~ Carry us to our very Various
Villages.

NAME: John Kolwa

AGE: 16




This is the place
where I take my
Food



Flomo Gelia Grade 4-B

I am 16 years old





James Koiwu

Age 19

